

Europa, pestizidak debekatzearen alde erleak babestearren

Apirilaren 29an Europako Batasunak onartu zuen bi urtez hiru pestizida neonikotinoide erabiltzea debekatzea, erleak suntsiarazten ari direlakoan. Tony Borg osasun-komisarioak hitz hauek esan zituen erabaki horri lotuta: "Erleak funtsezkoak dira gure ekosistemetan eta babestu egin behar ditugu, besteak beste, 22.000 euroko ekarpena egiten dutelako urtero Europako nekazaritzan".

Zehazki, klotianidina, imidacloprid eta tiametoxam dira debekatutako konposatuen izenak, eta arto-, koltza-, eguzkilore- eta soia-laboreei botatzen dizkiete, intsektuetatik babesteko. Erleengan, zehazki, nerbio-sistemako



ARG.: HOLLY OCCHIPINTI.

hartzailerei eragiten diete pestizidok, eta polena biltzeko, erlategira itzultzeko eta ugaltzeko zailtasunak izaten dituzte.

Debekua abenduaren 1ean jarriko dute indarrean. Ez da erabat

galaraziko, dena den, produktu horiek erabiltzea. Adibidez, negutegiaren barruko laboreetan erabili ahal izango dira, bai eta kanpoko laboreetan ere, loraldia pasatutakoan. ●



Hondartzan korrika zihozaren ikasleen oin-arrastoak.
ARG.: CHRISTIAN HAUGEN.

Oin-arrastoei bakarrik erreparatuta, abiadura kalkulatzeko modua asmatu dute

Oin-arrastoei bakarrik begiratuta ibiltarien abiadura kalkulatzeko metodo baten berri eman dute Madrilgo Konplutentseko eta Kanadako Alberta Unibertsitateko bi ikertzailek *Ichons* aldizkarian. 1976an Robert McNeil Alexander zoologo britainiarrak proposatutako ekuazioa izan dute oinarri. Oraingoan, ordea, ikertzaileek kendu egin dute ekuaziotik korrika edo oinez dabilenaren zangoaren luzera jakin beharra.

Jakin-min bitxi batetik abiatu zen ikerketa: ikertzaileek jakin nahi zuten zer doitasunekin kalkula daitekeen pertsona baten abiadura oin-arrastoei bakarrik erreparatuta, hau da, oinkaden luzerari bakarrik begiratuta. Bada, errorea % 10-15ekoa besterik ez izatea lortu dute.

Azterketarako, paleontologiako 14 ikasle jarri zituzten korrika Asturiasko hondartza batean, eta bakoitzaren abiadura eta oinkaden luzera neurtu zituzten. Ondoren,

100 eta 400 metroko lasterketetan diharduten atleta profesionalen oinkada eta abiadurekin alderatu zituzten lehenengo neurketan lortutako datuak. Bi kasuetan Alexander zoologo britainiarraren ekuazioa erabili zuten. 1976an proposatu zuen Alexanderrek ekuazio hori, bere seme-alaben korrikaldiak aztertuta. Frogatu ahal izan zuten, oso ongi doitu ziren ekuaziora haiek neurtutako datuak.

Ikasleen kasuan, zangoen luzeraren datua zuten; ez, ordea, atleta profesionalen kasuan. Hortaz, Alexanderren ekuazioa eraldatu, eta aldagai hori kontuan hartzen ez zuen bertsio bat sortu zuten. Lortutako ekuazioarekin gehienez % 15eko errorea lortu zuten arren, ikertzaileek onartu dute mugak ere badituela. Adibidez, atleta profesionalen kasuan, ikusi dute zenbaitetan berdina direla 100 metroko eta 400 metroko korrikalariek egiten dituzten oinkadak, eta, abiadurak, berriz, oso desberdinak direla. ●